

Euskarazko fikziozko zinemaren susperraldi hauskorra (2005-2012)

(The fragil revival of drama production in Basque (2005-2012))

Manias-Muñoz, Miren

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). EMAN ikerketa unitatea. Sarriena
auzoa, z/g. 48940 Leioa
miren.manias@gmail.com

BIBLID [1137-4438 (2013), 8; 85-108]

Jaso: 2013.07.19
Onartu: 2013.12.21

Artikulu hau 2000ko hamarkadan euskarazko fikziozko zinemak hasitako bidezidor berriaren gainerako gogoeta ekonomikoa da. Bide horretan Aupa Etxebeste! (2005) filma inflexio puntua izan da, ondoren etorritako uzta oparoak euskarazko zinemaren loraldi berria berretsi baitu. Oinarrian euskarazko ekoizpenentzako diru laguntzen handitzea eman da; baina egungo krisi ekonomikoaren ondorioz, babes ekonomiko hori nabarmen murriztu da eta etorkizun hurbila ez dirudi positiboa izango denik.

Giltza-Hitzak: Euskarazko zinema. Zinemaren finantziazioa. Fikzioa. Kultura. Ikus-entzunezko industria. Euskal Herria.

Este estudio es una reflexión económica sobre el cine de ficción en euskera de la década del 2000. Aupa Etxebeste! (2005) supuso un punto de inflexión, ya que el posterior número de películas en euskera confirma un florecimiento. En definitiva, se ha producido un aumento de las ayudas al cine en euskera. Pero debido a la actual crisis económica, el futuro se complica.

Palabras Clave: Cine en euskera. Financiación cinematográfica. Ficción. Cultura. Industria audiovisual. País Vasco.

Cet article présente une réflexion autour de l'essor du cinéma de fiction en langue basque depuis le début du 21ème siècle où le film Aupa Etxebeste! (2005) en fut l'élément déclencheur. Des lors le nombre de production cinématographique en langue basque a fortement augmenté grâce aux aides publiques même si cette tendance tend à s'estomper depuis ces dernières années à cause de la crise économique.

Most-Clés : Cinéma en Basque. Fiction. Culture. Financement du cinéma. Industrie audiovisuelle. Pays Basque.

1. SARRERA

Herralde baten kulturaren zati garrantzitsua da zinema, ikus-entzunezkoek adierazi ditzaketen balio eta esangurek lurralde bateko identitatearen, ezagutzaren eta garapen kolektiboaren onurarako baitira¹. Industria zinematografikoa balioan jartzeko lurralde barruko giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta teknikoak sustatu behar dira, kultura propioa garatzeko eta babesteko helburuarekin. Eta horretarako, aurretik sektorearen gaineko gogoeta egitea funtsezkoa da. Ildo horretan eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta, 2000ko hamarkadan euskarazko fikziozko zinema ekoizpenari eman zaion bultzada ekonomikoa azpimarratu behar da. Badagoelako mugimendu bat, sektoreko hainbat eragile publikoek eta pribatuek osatzen dutena –gidoigileak, zinemagileak, ekoizleak, Eusko Jaurlaritza, ETB–, filmak eginez euskarazko zinema industriari jarraitutasuna emango dion testuinguru ekonomiko eta kultural sendoa lortzeko ahaleginetan dabilena 2004tik.

Azken 8-9 urteotan euskal ikus-entzunezko sektorean agerian geratu da nortasun propioa duen zinema eta maila oneko filmak egiteko nahia. 2006an, 2009an eta 2010ean, esaterako, lau edo bost film luze egin dira urtean. Fikziozko euskarazko ekoizpenei dagokienean, berriz, 2005etik 2012ra bitartean, gutxienez, urtero errodatu da film luze bat (2008an izan ezik). Eta euskara hutsean ez diren bi eta hiru film luze egin direneko urte onak –2010 eta 2011, 2012– ere izan dira tartean. Azpimarratzeko **gertaera** da hori, izan ere, euskal zinemak ez du horrelako egoera bat bizi izan 80ko hamarkada amaieratik. Are gutxiago euskara hutsean egindako fikziozko ekoizpenak.

Halaber, 2005ean Telmo Esnalek eta Asier Altunak zuzendutako *Aupa Etxebeste!* filma inflexio puntua izan da ibilbide horretan, jarraian etorritako uzta oparoak berretsi baitu fikziozko euskarazko zinemak bizi duen loraldi berria. Esnal eta Altunaren filmak izandako arrakastak zinemagile gehiago animatu ditu euskarazko film luzeak egitera: *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* (2006), *Eutsi!* (2007), *Sukalde Kontuak* (2009), *Zorion perfektua* (2009), *80 egunean* (2010), *Izarren argia* (2010), *Arriya* (2011), *Urte berri on*, *Amona!* (2011), *Dragoi ehiztaria* (2012) eta *Bypass* (2012), besteak beste. Horrez gainera, euskal zinemagileak ez dira konformatu soilik filmak ekoiztearekin, 2009an, 2010ean, 2011n eta 2012an egindako euskarazko fikziozko film luzeak maila tekniko eta artistiko handiagoko lanak izan dira.

Egungo egoerara iristea lortu da Espainiako Ministerioak, Eusko Jaurlaritzak eta ikus-entzunezko sektoreko hainbat eragilek euskal kulturaren alde –eta ikus-entzunezkoen alde bereziki– egindako apustu ekonomikoari eta haien artean adostutako hainbat hitzarmenei esker. Ekimen ugari egin dira euskarazko zinema babestu eta sustatzeko, hala nola,

1. *Euskal Ikus-entzunezkoen Liburu Zuria*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, 2003; 169 or.

Euskal Ikus-entzunezko sektorearen Liburu Zuria (2003), Kulturaren Euskal Plana (2004), Eusko Jaurlaritzak EAEn Ikus-entzunezko produkzioa sustatzeko finantziario dekretua (2007)², Espainiako Zinemaren Legea (2007) – Espainiako hizkuntza ofizialkidetan egindako lanetara Kultura Ministerioak bideratutako laguntza lerro bereziaren garrantzia azpimarratuz³–, eta azkenik, Espainiako Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra (2010) –zeinetan hizkuntza ofizialkidetan egindako telebista edukien programazioa arautzen eta babesten den–.

Aldizkako ekoizpen eredia atzean utzita, esan daiteke euskal zinemari ekoizpen jarraitua emango dion oinarri industrial eta testuinguru sozio-ekonomikoa gauzatzeko unean gaudela. Ahaztu nahi dira 80ko hamarkadan euskal zinemaren izaeraren gainean emandako eztabaidak eta oinarri ekonomiko sendorik gabe ekoizten aritzeko eredu hauskorra, orain “zinema ona egitea dela erronka diote euskal zinemagile gehienek”⁴. Hala, azken urteotako euskarazko uzta oparoa ikusirik, EAEn nahikoa baliabide tekniko eta artistiko ditugula agerian geratu da eta filmak egiteko nahia azaldu dute euskal zinemagileek⁵. Baina, zer nolako produktuak egin dira? Nola pentsatuak? Nori zuzenduak? Nola finantzatuak? Bide horretan kontuan hartzekoak dira publikoaren kontsumo ohituretan eta zinemaren negozio-ereduan jazotako aldaketak –formatu eta eduki berrien ugaritzea, eta Interneten etorrerak bultzatuta–; izan ere, euskal zinemagintzak baditu makal dauden arloak eta horiek sendotzea dira egungo erronka nagusiak: batetik, euskal pelikulek orokorrean duten publikoaren erantzun kaskarra hobetzea, eta bestetik, produktuen maila hobetzea.

Fikziozko euskarazko film luzeek ez dute errepikatu *Aupa Etxebeste!* filmarekin 2005ean lortutako arrakasta: 71.972 ikusle. Ordutik hona ikusle kopuruak beheranzko joera hartu du, salbuespenak kenduta –80 egunean (22.087), *Izarren argia* (25.228), *Dragoi ehiztaria* (22.575) eta *Bypass* (36.008)–. Eta etorkizuna ez dirudi oso oparoa izango denik. Batetik, zinema kontsumitzeko ohiturak aldatu egin direlako, eta horrekin batera, mundu mailako zinema industriaren balio kate osoa (produkzioa, banaketa eta erakusketa). Eta bestetik, bizi dugun krisi ekonomikoaren ondorioz, kultura sustatzeko diru laguntzak nabarmen gutxitu direlako azken urteetan. Hala, kostata eutsiko zaio euskarazko fikziozko zinemak 2000ko hamarkadan hasitako bidezidor horri.

2. Iñigo Urkulluren Gobernuak dekretua bertan behera uzteko erabakia hartu berri badu ere.

3. 2008an, 2009an, 2010ean eta 2011n egin zituen deialdiak Espainiako Gobernuak. 2012an, berriz, ez zuen funts horretarako dirurik bideratu; eta 2013an, azkenik, Mariano Rajoy-ren Gobernuak diru-laguntza lerroa bertan behera uzteko erabakia hartu zuen.

4. AGIRRE DORRONSORO, Lorea. “Eraiki, baina zer”. [Sarean]. In: *Berria.info*. 2011ko urriaren 18. http://paperekoa.berria.info/plaza/2011-11-18/034/003/eraiki_baina_zer.htm.

5. GARCIA IDIAKEZ, Mikel. *Zeluloidezko begiradak*. 1 arg., Donostia: Elkar, 2011. 222 or.

2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ZINEMAREN SUSTAPEN POLITIKA

Gutxiengoen zinemagintzak hizkuntza, hizkuntz komunitatea, kultura, lurraldetasuna, azpiegiturak eta baliabide tekniko eta profesionalak ditu ezaugarri nagusi bezala; eta baita oinarritzat ere. Hala, ezaugarri horiek aintzat hartzea funtsezkoa da ekoiztutako pelikulek beren merkatuan ahalik eta ondoen aritu daitezen. Horretarako, sektoreko eragile publikoek zein pribatuek zinema diru iturri eta ondare kultural garrantzitsu bezala ikusi behar dute⁶, izan ere, lurralde ekonomiak bere kulturaren beharra du eta baita alderantziz ere. Horregatik, bi kontzeptuak uztartzen dituzten lan ildoak oinarritzakoak dira egitura sendoa bultzatu aldera. Ildo horretan, Patxi Azpillaga **egileak**, esaterako, ikuspegi pesimista agertzen du. Azpillagaren arabera, Euskal Herriko barne-merkatuaren hedapen txikiak eta ikus-entzunezko industriaren berezko ezaugarri ekonomikoek –sektore konplexua, kostu eta arrisku handikoa– zaildu egiten dute berezko industria egitura lehiakorra eratzea⁷.

V. Inkesta Soziolinguistikoaren⁸ arabera, euskararen lurraldeetako (EAE, Iparraldea eta Nafarroa) 16 urte edo gehiagoko biztanleen %41,6k bakarrik hitz egin eta ondo ulertzen du euskara (elebidunak eta elebidun hartzailleak kontuan hartuta). Alegia, 1.102.391 lagunek. Kultura minoritarioak merkatu txikietan jarduten dute, eta beraz, euren burua elementu kulturalen bitartez bakarrik auto-elikatzeko zailtasunak dituzte. Horregatik, esparru kultural eta ekonomikoan oinarritutako egitasmo publiko eta pribatu koordinatuak behar dira⁹. EAEn zinemagintzak duen merkatu arazoari egungo egoera soziolinguistikoaren ikuspuntu ekonomiko eta kulturaletik aurre egin behar zaio. Giza baliabideak eta teknologikoak uztartuta, eta ezin ahaztu sormen eta berrikuntza arloak ere. Saiakera horretan euskararen normalizazioa ere bilatu beharko da, gizarteak euskara erabili eta onesten duelako hizkuntza horrek sektore horretan duen presentziaren arabera.

Ekoizpenak utzitako emaitzen ikuspegitik EAeko ibilbide zinematografikoaren periorizazioa garbia da, hiru alditan banatu daiteke haren orain arteko jarduna: 60ko eta 70ko hamarkadak, 80ko eta 90ko hamarkadak, eta azkenik, hasi berri dugun XXI. mende honen lehen urteek utzitako uzta oparoa. Carlos Roldan Larretak¹⁰ dio, hamarkada bakoitzak utzitako produkzio emaitzak lotura zuzena duela zinema industriak orduan izandako egiturarekin. Horri, ordea, orduko sustapen neurrien eragina gehitu behar zaio.

6. ZALLO ELGUEZABAL, Ramón (Zuz.). *Industrias y políticas culturales en España y País Vasco*. 1 arg., Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua, 1995. 428 or.

7. AZPILLAGA GOENAGA, Patxi. "Ikus-entzunezko Industria Hego Euskal Herrian". In: *Jakin*, 1997, 99 zk., 11-29 or.

8. V. *Inkesta soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak, 2012, 27 or.

9. *Euskal Ikus-entzunezkoen Liburu Zuria*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak, 2003, 169.

10. ROLDAN LARRETA, Carlos. "El cine en el País Vasco; desde Ama Lur (1968) a Airbag (1997)". *Ikusgaiak. Cuadernos de cinematografía*, 1999, 3 zk., 406 or.

2.1. Jatorria

Lehen aldiz euskaraz egindako film baten erakustaldia 1933. urtean egin zen, *Alma Vasca* filmarena hain zuzen. Orduko Iruneke prentsa idatziak “euskal ohiturak jaso eta euskarazko elkarrizketak” entzuten zireneko lehen filma bezala definitu zuen¹¹. 30eko hamarkadan baina, euskal zinemaren ekoizpen oso urria eman zen; horien artean, Teodoro Ernandorenak –orduko EAJ-PNVko burukideak– egindako *Euzkadi* (1933) izeneko film labur propagandistikoa azpimarratu daiteke, Euskal Herriko Aberri Egunaren irudiekin osatua.

Saiakera sendoagoa lan modernoagoekin eman zen 60ko eta 70eko hamarkadetan. Gotzon Elorza (Bilbo, 1935), Fernando Larruquert (Irun, 1934), Nestor Basterretxea (Bermeo, 1924) eta Antxon Ezeiza (Donostia, 1935-2011) zinema zuzendariak euskal zinema egiteko nahia agertu zuten dokumental sorta, film luze eta film laburrekin, hurrenez hurren. Elorzak *Ereagatik Matxitxakora* (1959), *Aberria (Erria)* (1961) eta *Elburua Gernika* (1962) izeneko dokumentalak filmatu zituen Francoren diktadura garaian, 16 mm-ko kamerarekin. Euskal izaeraz egindako lehenengo dokumentalak bezala ezagutzen direnak. Bestetik, Larruquert eta Basterretxeak *Ama Lur* (1968) Euskal Herriaren inguruan, balio etnografiko handiko eta euskara entzun zitekeeneko film luzea egin zuten ere frankismo garaian. Ezeizak, azkenik, *Ikuska* (1978-1985) izeneko euskarazko film dokumentalen saila ekoiztu zuen. Film labur bakoitzak bere gidoilaria eta bere zuzendaria izan zituen, eta Euskal Herriko gaiak jorratu zituzten guztiek.

2.2. 80ko hamarkada

80ko hamarkadan Eusko Jaurlaritzak zinema babesteko diru-laguntzen lerroa ezarri zuen lehen aldiz: 1981. urtean. Jaurlaritzaren diru-laguntzei Espainiako laguntza-sisteman emandako aldaketa esanguratsua gehitu zitzaion 1982. urtean: *Miro legea* bezala ezagutzen dena, hain justu ere. Pilar Mirok (Madril, 1949-1997), zinemagile espainola eta orduko Espainiako Zinematografiaren Institutuko zuzendariak, filma amaitu aurretik diru-laguntzak emateko bultzatutako egitasmoa izan zen. Hala, hamarkada horretako une batean Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ematen zituzten laguntza biak jasotzeko aukera izan zuten euskal zinemagileek. Ondorioz, 1981 eta 1991 urte bitartean euskal 43 film luze ekoiztu ziren.

Alabaina, Eusko Jaurlaritzaren laguntza gehienak aukeraketa batzorderik eta deialdi publikorik gabe egin izanak, “nekez konpentsatu zituen Euskal Herrian ekoizteak zekartzan kostu gehigarriak”¹². Horrez gainera, zinemagile askok

11. DE PABLO, Santiago. *Cien años de cine en el País Vasco (1996-1995)*. 1 arg. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 1995. 122 or. (45-46 or.)

12. AZPILLAGA GOENAGA, Patxi. “Euskal Herriko zinegintzaren oinarri ekonomikoak”. In: *Jakin*, 2004, 144. zk., 85-101 or (89 or.)

salatu egin zuten 1985etik aurrera Jaurlaritzak proiektu zinematografiko zehatz batzuk finantzatzeari ekin ziola bere aldetik. Horregatik, azpiegitura eta errekur-tso ekonomikoen faltan, euskal zinemagile askok Madrilera eta Bartzelonara alde egin zuten 80ko hamarkada amaieran. Hala, euskal zinema sustatzeko saiakera egon bazen ere, ekoizpen jarraituek ez zuten baliabide tekniko eta giza baliabidetan oinarritutako azpiegitura sendoa garatu¹³. Sormenean, arlo tek-nikoan eta ekonomikoan egindako inbertsioek emaitza mugatua izan zuten eus-kal ikus-entzunezko sektorean.

2.3. 90eko hamarkada

Telebistak indarra hartu eta gero eta ikusle gehiago bereganatu bazi-tuen, zinema-aretoek etengabe galdu zituzten. Horrez gainera, urtetik urtera film luzeak egiteko kostuek gora egin zuten. Ondorioz, Espainiako Kultura Ministerioak zinemarentzako sustapen eredia aldatu egin zuen 1989. urtean. Horren arabera, aurreratutako diru-laguntza eskatu ez zuten ekoizleek filmak estreinatu ondotik inbertsioaren herena berreskuratzeko aukera zuten, baldin eta gutxieneko diru kopuru bat lortzen bazuten takilan. Eusko Jaurlaritzak ere aldaketaren aldeko apustua egin zuen, eta diru laguntza soilen eredutik elkarte publiko berri baten bidez eginiko koprodukzio-inbertsioetara igaro zen 1990. urtean. Horretarako, zinemarentzako laguntza publikoak kudeatzeko erakunde publikoa sortu zuen: Euskal Media. Hala, 1991 eta 1996 urte bitartean zinema produkzioarako diru-laguntza guztia Euskal Mediaren bitartez bideratu zuen, eta ikus-entzunezko ekoizpenak subentzionatzetik horietan inbertitzera pasa zen. Sistema berri horrekin Jaurlaritzak filmetan inbertitutako dirua berreskuratzea zuen helburu. Bada, epe horretan zineman egindako ekarpenak behera egin zuen nabarmen: 1.387.522 eurotik (1991) 484.716 eurora (1996), hain justu ere.

1996. urtean, berriz, Jaurlaritza diru-laguntza publikoen deialdietara itzuli zen berriro. Hori bai, laguntzak murriztu eta dibertsifikatu egin zituen; film luzeen ekoizpenerako ez ezik, gidoiak idazteko eta proiektuak garatzeko ere eman ziren. Horrekin batera, ikus-entzunezko sektoreko kideen eta administra-zioaren arteko harremanak berreskuratu egin ziren hamarkada horren amaieran. Ondorioz, laguntzak pixkanaka igotzen joan dira 2000tik 2010era bitartean. ETBrekin ere hainbat hitzarmena sinatu dira zinema sustatze aldera, baina “oso prezio murriztuan”¹⁴.

13. ZALLO ELGUEZABAL, Ramón. *Industrias y políticas culturales en España y País Vasco*. (Zuz.). 1 arg., Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua, 1995. 428 or. (226 or.).

14. AZPILLAGA GOENAGA, Patxi. “Euskal Herriko zinegintzaren oinarri ekonomikoak”. In: *Jakin*, 2004, 144. zk., 85-101 or. (98 or.)

2.4. 2000ko hamarkada

Azken 7-8 urteotako ikuspegia aztertuz gero, euskarazko zinema produkzioak gora egin du nabarmen. Seguruenik, ekimen berriak abian jarri direlako. 2003. urtean Ikus-entzunezkoen Liburu Zuria idatzi zuten Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak eta Kultura Sailak eta EITBk. Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezkoak sustatzeko lan ildo berriak planteatzen zituen liburua, hain zuzen. Sektorearen ezaugarri nagusien aurkezpena eta zinema produkzioarako beharrak adierazi ziren bertan; horien artean, finantziario lan ildoak, politika fiskal berria edota diru-laguntzen sistema berritzeko proposamena. Finean, euskal ikus-entzunezkoen balio kate osoaren gaineko gogoeta egin zen.

Liburu Zuria oinarrian hartuta, sektoreko hainbat profesionalekin, Foru Aldundiekin eta hainbat herritako udalekin batera, Eusko Jaurlaritzak Kulturaren Euskal Plana onartu zuen 2004. urtean. Horrekin, 2004-2008 urte bitartean sektoreko eragileekin batera jorratu beharreko lan ildoak finkatu ziren. Horien artean, zinema sustatzeko eredu berria: finantziario dekretua. Iñaki Gomez Sarasola orduko Kultura Sustatzeko Departamenduko zuzendariaren arabera, 4 urteko aldi hartan orduko finantzaketa lerroa sortu zen. Hala ere, EAEn egiteko asko dagoela dio Gomezek, oraindik ez baitira laguntza automatikoak gauzatu¹⁵. Bestetik, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren azken legegaldian Kulturaren Bigarren Euskal Planerako jarraibideak ere ezarri ziren.

Taula 1. ETBren inbertsioa euskal zineman (2005-2012) (€tan)¹⁶

Urtea	Aurrekontua
2005	2.485.000
2006	2.548.637
2007	5.013.833
2008	7.264.464
2009	7.299.178
2010	9.034.269
2011	6.605.373
2012	7.574.859

Iturria: AZPILLAGA, Patxi. "Euskadiko ikus-entzunezko industriaren erronkak".

15. GOMEZ SARASOLA, Iñaki. "Euskarazko film luzeak ekoizteko eta banatzeko zailtasunak". In: *Gure zinema gaur*. Eskoriatza: Mondragon Unibertsitatea, 2009ko maiatzaren 4.

16. AZPILLAGA GOENAGA, Patxi. "Euskadiko ikus-entzunezko industriaren erronkak". In: *Jakin*, 194/195 zk., 61-76 or.

Hala, 2005etik aurrera aldaketa politiko garrantzitsuak eman dira ikus-entzunezko produkzioari dagokionez. Urteik urtera produkzio kopuruak gorako bidea hartzeaz gain, irregulartasuna atzean utzi eta egonkortzera egin du. 80ko eta 90eko hamarkadan zinema laguntzeko borondaterik agertu ez bazuen ere¹⁷ (salbuespen gutxi batzuk kenduta), azken hamarkadako produkzioan ETBren ekarpena erabakigarria izan da. 2002an Eusko Jaurjaritza eta ETBren artean kontratu programa sinatu zen, bien arteko harremana arautuz. ETBk zinemarekiko betebeharrak aintzat hartu zituen, eta trukean haiek finantzatzeko ekarpenak egiteko konpromisoa onartu zuen Jaurjaritzak. Gerora beste hitzarmen batzuk ere etorri ziren (2005, 2007, 2008 eta 2009). Ondorioz, azken urte hauetan zinemaren garapenerako oinarritzko finantziazio iturri izan da euskal telebista. 2005etik 2010era bitartean 2.485.000 euro inbertitzetik 9.034.269 euro inbertitzera pasa da. Alegia, zinemarentzako aurrekontua %72,5 handituz. 2011an eta 2012an, berriz, funtsa murriztu egin du (nahiz eta 2011tik 2012ra igo egin duen) eta 2008ko kopurueta itzuli da.

Patxi Lopez lehendakari ohiaren legealdian (2009-2012) ekimen berri gutxi bultzatu da euskal zinemaren alde. Kulturaren Bigarren Euskal Planaren jarraibideak albo batean utzi eta Contrato Ciudadano por las Culturas (CCC) izeneko “plan estrategiko” berria aurkeztu zuen Blanca Urgell orduko Kultura sailburuak, 2010eko urrian –alegia, legealdi berria hasi eta urte bat eta bost hilabeteren ondotik–. Plan estrategiko hori paperean gauzatu zen baina Foru Diputazioen arteko desadostasunak tarteko, dokumentua balioztatzeke geratu zen –inolakako babesik izan gabe Kultura sailburuak hainbatetan bakarrik balioztatu nahi izan bazuen ere–. Bestetik, krisi ekonomikoa dela-eta, Lopezen gobernuak 33 milioi gutxiago bideratuko zituen Kulturara 2012an, eta zuzeneko diru-laguntzen arloan eman zen murrizketarik handiena. Egoera are larriagoa izan zen orduko Kultura Kontseiluan ikus-entzunezko sektoreko ordezkarien presentziarik ez zegoela kontuan hartzen bada –ez baitzegoen Euskal Produktoreen Elkarte (IBAIA) ordezkariarik–.

Iñigo Urkulluk eratu duen gobernu berriak, berriz, Jaurjaritzak inoiz egindako murrizketarik handieneko aurrekontuak aurkeztu ditu 2013an –nahiz eta aurrekontu proiektua erretiratu zuen joan den apirilean, Europako Batasunak defizit maila murrizteko duen aukeraren aurrean–. Ildo horretan, azpimarratzekoa da Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntz Politikaren aurrekontua aurreko urtekoa baino %10,1 txikiagoa izateko proposamena egin duela.

3. EUSKARAZKO FIKZIOZKO FILM LUZEEI APLIKA DAKIEKEN FINANTZIAZIOA

Euskarazko fikziozko pelikulen oinarri ekonomikoak aztertu aldera, haien finantziazioa erregulatzen duten jatorri instituzionaleko diru-laguntzen sistema

17. Nahiz eta Europako Batasunaren Mugarik Gabeko zuzentzarauak (1989) zineman inbertitzea derrigortzen zuen: haien irabazien %5 (horren %60 Estatuko hizkuntzetako batean egindako ekoizpenetan). Ondoren, Espainiako Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorrak (7/2010 Legea) %6ra igo zien izaera publikoko kate publikoei.

aintzat hartzea funtsezkoa da. Alegia, Europak, Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak lurralde barruko ikus-entzunezko produkzioa babestu eta ekonomikoki laguntzeko arau bidez ezarrita duten finantziario eta diru-laguntzen sistemak.

3.1. Jatorri instituzionala duten diru-laguntzak

Europar, Espainiar eta EAEn instituzioek ikus-entzunezko sektorearen garrantzia azpimarratzen dute hedapen kulturala eta ekonomikoari lotuta¹⁸. Horretarako, gobernuek industria zinematografikoarentzat babes eta sustapen neurriak egituratu dituzte.

3.1.1. Europa

3.1.1.1. MEDIA

Europako Batasunak ikus-entzunezko industriaren garapenerako lehen neurri programa jarri zuen martxan 1988. urtean. Ekimen horrek film europarren finantziario, produkzio, banaketa eta ustiatze arloetan laguntza egiturak eraiki zituen. 1991. urtera arte, ordea, ez zen ofizialki hori onartu. Sustapen sistema bi arrazoik bultzatu zuten nagusiki. Batetik, 80ko hamarkadan Europako herrialde gehienetako telebista merkaturan ugartutako konpetentziak; telebista kate pribatuen agerpenak Europa barruan zein kanpoan egindako ikus-entzunezko edukien eskariaren handitzea bultzatu zuen, eta Europako industriak ezingo luke merkeago ekoiztutako produktuekin lehiatu. Eta bestetik, herrialde gehienetako zinema aretoetan bildutako audientziaren beherakadak; bereziki Europar egindako filmen kasuan.

Zinema merkatuaren aldaketa estrukturalen aurrean, arrazoi ekonomikoak tarteko, film europarrek ez dute egoera berrira egokitzeko gaitasun handirik. Ondorioz, Europako filmek merkatu kuota sendoa galdu dute ordutik, eta horrekin batera, europar ekoizleen ekoizpen baldintzak okertu egin dira. Illo horretan, Europako ikus-entzunezko sektorea indartzea eta haren lehiakortasuna handitzeko helburuarekin, plan programa abiatu zen 1991. urtean: MEDIA izenekoa. Horrez gainera, kultur nortasuna eta ondarea errespetatzea, lanak lurralde barruan eta kanpoan erakusten laguntzea, eta teknologia digitalen promozio eta finantziariorako sarbidea erraztea ere helburu izanik. Hala, programa honek Europako Batasuna osatzen duten herrialdeekin batera finantzatzen ditu sektoreko profesionalen formazio ekimenak, ekoizpen proiektuen garapena (film luzeak, telesailak, dokumentalak eta animaziozko lanak), banaketa, promozioa eta baita produktuen erakusketa ere. Hainbat urteetarako diseinatu

18. ALVAREZ MONZONCILLO, José María; LOPEZ VILLANUEVA, Javier. "El Audiovisual Español. Nuevas oportunidades en el exterior". In: BUSTAMANTE, Enrique (coord.) *Informe sobre la cultura española y su proyección global*. 1 arg. Madril: Fundación Alternativas, 2011. 115-131 or.

diren sustapen lau programa egon dira hurrenez hurren: MEDIA I (1991-1995), MEDIA II (1996-2000), MEDIA Plus (2001-2006) eta MEDIA 2007 (2007-2013).

Taula 2. Europako ikus-entzunezko produkzioa sustatzeko diru-laguntzen ibilbidea

Programa	Aurrekontua
MEDIA I (1991-1995)	200 milioi euro
MEDIA II (1996-2000)	265 milioi euro
MEDIA Plus (2001-2006)	453,6 milioi euro
MEDIA 2007 (2007-2013)	755 milioi euro

Iturria: MEDIA Programme. Norberak egina.

MEDIA urteko lan programa ezberdinen eta, esan bezala, hainbat finantziario erregimen bidez inplementatzen da. Gainera, horien aurrekontua handituz joan da urtetik urtera. Europako ikus-entzunezkoak sustatzeko diru laguntza ia lau aldiz handitu da hamar urteetan: 200 milioi eurotik 755 milioi eurora¹⁹, hain zuzen ere. 2014tik aurrera, ordea, MEDIA programaren ibilbidea amaitu eta horren ordez Creative Europe (2014-2020) izeneko ezarriko da. Honek kultura eta ahalmen sortzailea bultzatuko ditu, eta aurreko programek baino %9 aurrekontu handiagoa izango du. Alegia, 1.4 bilioi euro sei urteetan banatzeko. Baina MEDIAz gain, Creative Europek bere baitan hartuko ditu baita ere MEDIA Mundus eta Kultura izeneko programak. Hala, Creative Europaren azpi-programa izatera pasatuko da MEDIA, eta haren aurrekontuaren %56 hartuko du.

3.1.1.2. Eurimages

Eurimages diru-laguntzen programak Europako Batasuneko 36 herrialdeko filmen koprodukzioa, banaketa, erakusketa sustatu eta zinema aretoak digitalizatzeko Europako Kontseiluak bideratutako funtsa kudeatzea du xede. Proiektuen artean fikziozko film luzeak, animaziozkoak eta dokumentalak aintzat hartzen dira bakarrik. Programa 1988. urtean sortu zen eta kultur aniztasuna sustatzea ardatz, 2007-2013 aldian urteko 25 milioi euroko aurrekontua du.

3.1.2. Espainia

Espainiako Gobernuak bere aldetik, Zinemaren Legean (55/2007 Legea) ezartzen ditu zinema babesteko politikaren helburuak: enpresa burujabeei

19. Europako filmek jasotzen duten diru-laguntzaren zati bat itzuli egin behar dute, hortaz, MEDIA programara bideratzen den funtsa handitu egin daiteke itzulketa horiek direla eta.

babestea, ikus-entzunezko merkatuaren desoreka saihestea, enpresei formatu eta teknologia berriei egokitzen laguntzea eta sormena eta egileak laguntzea. Hori da zinemaren jarduna arautzen duen abiapuntua. Ekoizten laguntzeko produktoreei bideratutako diru-laguntzetan eta zinema aretoen jabeei eta telebista kateei ezarritako betebeharretan oinarritzen den sistema, alegia. Zinemaren Legeak dioenez, garrantzitsua da zinemagile berriei eta obra esperimentalei lehentasuna ematea. Horregatik, filma egin aurretik diruz laguntzea eta lanen amortizaziorako laguntza automatikoak ematea dira neurri nagusiak –zinema aretoetan diru-bilketa minimo bat egitea baldintza moduan jarrita–. Honako hauek dira Espainiako Gobernuaren diru-laguntza lerro nagusiak ikus-entzunezkoetan:

- Gidoien sorkuntzarako laguntzak
- Ikus-entzunezko proiektuak garatzeko laguntza
- Ikus-entzunezko ekoizpena laguntzeko

Taula 3. Estatuaren diru-laguntzak zinema ekoizteko (2006-2013) (€tan)

Urtea	Aurrekontua
2006	53.400.000
2007	59.610.540
2008	68.600.000
2009	79.200.000
2010	81.861.000
2011	73.400.000
2012	38.000.000
2013	32.000.000

Iturria: ICAA. Norberak egina.

Azken lau urteetan, ordea, zinema ekoizteko bideratutako diru-laguntzak beherako bidea hartu du. 2010 eta 2013 urte bitartean aurrekontua %61 murriztu da, hain justu. Alegia, 81.861.000 eurotik 32.000.000 eurora. Gainera, 2014rako aurrekontu orokorren arabera, Espainiako zinemaren funtsa osoak 48,21 milioi euro izango ditu; 2013an baino %12,4 gutxiago.

Bestetik, Espainiako Kultura Ministerioak Autonomia Erkidegoekin gazte-lera ez den beste hizkuntza ofizialkideetan egindako ekoizpenak diruz laguntzeko lankidetzat hitzarmena du. Neurri horren helburua da hizkuntza horietan egindako ikus-entzunezko industria ekoizpena, banaketa, erakusketa eta promozioa sustatzea. Hala, Kultura Ministerioak urteko diru-poltsa horretatik Jaurlaritzari zenbateko bat eman eta, azken horrek ezarritako hainbat modalitateetan banatzeko, euskarazko proiektuetara bideratzen da oso osorik.

Laguntza lerro hori, ordea, 2011an amaitu zuen bere ibilbidea; izan ere, funtsa ezabatzea erabaki zuen Mariano **Rajoyren** gobernuak. Hitzarmen horren harira, 2008an hasi eta 2011ra bitartean estatuak euskarazko zinemari egindako ekarpena 3.142.924 eurokoa izan zen guztira. 2010etik 2011ra aurrekontu hori %15,7 murriztu bazen ere, urtetik urtera igotzen joan den kopurua izan da; azken partida 1.100.504 eurokoa izan zen. Urte horietan guztietan euskarazko ikus-entzunezko ekoizpenarentzat babes garrantzitsua izan da dudarik gabe. 2010ean, esaterako, estatuak 1.305.000 euro bideratu zituen horretarako.

Taula 4. Euskarazko zinemari estatuak egindako ekarpena (€tan)

Urtea	2008	2009	2010	2011
Aurrekontua	124.000	613.420	1.305.000	1.100.504

Iturria: ICAA. Norberak egina.

Horrez gainera, zinema babesteko beharra kontenplazten duen bigarren araudia du: Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra (7/2010 Legea). Kultura eta hizkuntza aniztasun eskubidea dela eta, 5. artikuluan Europako film luzeak, telebistarako filmak zein telesailak, dokumentalak eta animaziozko lanak aurrez finantzatzeko obligazioa ezartzen zaie estatu eta autonomia mailako izaera publiko zein pribatuko telebista kateei. Horrez arabera, kate pribatuei jasotako diru-sarreraren %5 ikus-entzunezkoetan inbertitzeko eskatzen zaie. Eta kate publikoei, berriz, diru-sarreraren %6²⁰. Azken horiek gainera, inbertsio horren %75 zineman inbertitu behar dute derrigorrez, eta kate pribatuek, aldiz, %60. Horrez gainera, zenbateko horien erdia ekoiztetxe burujabeen proiektuen alde bideratu beharko dute.

Beste alde batetik, zinema areto eta telebista kateei euren programazioan Europako zinema emateko obligazioa ere ezartzen die Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorrak, pantaila kuota sistemaren bitartez. Hala, telebista kate bakoitzaren edota kate multzoen emisio denboraren %51 gorde behar dute Europako obrak emateko. Eta Espainiako zinema aretoetan jartzen dituzten pelikulen %25 Europar Batasuneko obrak behar duten izan.

Modu horretan, pelikulen ekoizpena sustatzeko diru-laguntzen sistema eta telebista kateek zineman inbertitzeko duten obligazioak dira Espainiako Gobernuaren sustapen neurri garrantzitsuenak. Erakunde pribatuei eginkizun

20. Ezin da aipatu barik utzi, Mariano Rajoy Espainiako Presidentearen Gobernu berriak kate publiko espainolari (RTVE, Radio Televisión Española) 200 milioi kendu dizkiola urteko aurrekontutik; eta horrekin batera, kate publikoetan barruko ekoizpena gehiago sustatuko duen araudi berria ezarri nahi duela. Berri txarra dudarik gabe zinema industriarentzat.

publikoak betetzeko eskatuz eta auto-erregulazioa aldarrikatuz²¹, Espainiako zinema erregulazioa subjektu publikoen eta pribatuen arteko lankidetzan oinarritzen da²².

3.1.3. Euskal Autonomia Erkidegoa

Autonomia Erkidegoek Espainiako sistemaren baitan araudiek ezartzen dizkieten funtzio batzuk betetzeaz gain, euren laguntza edo sustapen sistema propioak garatu dituzte. Eusko Jaurlaritzak 338/2003 dekretuan finantziario lerro espezifikoak ezarri zituen ikus-entzunezko produkzioa sustatzeko, proiektuak egoki aukeratu eta hauei lotutako arriskuak behar bezala ebaluatuta, ikus-entzunezko produkzio-modalitateen finantziarioan sortzen diren arazo larriak arintzeko eta etorkizun handiko kultur sektore berritzaile horretan proiektu garrantzitsuak burutu ahal izaten laguntzeko.

Ondoren, 107/2007 dekretuak diru-laguntza jaso dezaketen ikus-entzunezko produkzioari eta onuradunei buruzko zenbait aldaketa ekarri eta interes-tasarik gabeko maileguen mugak aldatu zituen. Hala, Eusko Jaurlaritzak 2007ko ekainaren 26ko 107/2007 dekretuan EAEn ikus-entzunezko produkzioa sustatzeko finantziario arautu zuen. Alabaina, finantziario erregimen hori bertan behera uzteko erabakia hartu du Jaurlaritzak. Hala, itzultzeko maileguen azken deialdia 2012an egin zen.

Horrez gainera, helburu kultural eta hizkuntza normalkuntzarako politika dela-eta, ikus-entzunezkoak sortu, garatu eta ekoizteko diru-laguntzen lerro sistema ere arautua du. Horien helburua da, oro har, kultur arloan eragina izatea²³. Laburbilduz, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak kudeatu eta ikus-entzunezko bideratutako urteko diru-laguntzak honako hauek dira:

- Gidoien sorkuntzarako laguntzak
- Ikus-entzunezko ekoizpenerako diru-laguntzak
- Fikziozko eta animaziozko filmen eta sortze-dokumentalen publizitate eta sustapenaren aldeko diru-laguntzak

21. Zinemaren Legeak 1652/2004 Errege dekretuari egiten dio erreferentzia telebista kate publikoei zinema ekoizpenean inbertitzeko obligazioa ezartzeko: "zinematografia sustatzeko ekintzetan

22. DE LA SIERRA, Susana. *Derecho del cine: administracion cultural y mercado*. 1 arg., Madril: lustel, 2010; 302 or.

23. GARCIA IDIAKEZ, Mikel. *Lilura hauskorra* [Sarean]. Argia.info 2011ko abendua [erreferentzia: 2011ko martxoaren 22] Hemen erabilgarri: <http://www.argia.com/argia-astekaria/2303/lilura-hauskorra>

Taula 5. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza zinemarentzat (2005-2013) (€tan)

Urtea	Aurrekontua
2005	1.276.000
2006	1.311.000
2007	1.820.000
2008	1.920.000
2009	2.000.000
2010	2.029.800
2011	2.070.600
2012	1.623.000
2013	1.496.000

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Norberak egina.

Azkenik, ikus-entzunezko produkzioa sustatzeko garatu eta erabiliko diren finantziario baliabideek, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen lerroez gain, beste aukera batzuk ere eskaintzen dituzte: aurrerakin itzulgarriak edo interes-tasa txikiko maileguak, oinarri teknologiko edo berritzailea duten enpresentzat beste programa batzuetan egiten den bezala. Modu horretan, Eusko Jaurlaritzaren ikus-entzunezkoen finantziario eta diru-laguntzen sistema laguntza osagarria izango da euskarazko zinemarentzat.

4. EUSKARAZKO FIKZIOZKO ZINEMAREN FINANTZIAZIO EREDUA: AUPA ETXEBESTE! (2005), KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL (2006), EUTSI! (2007) ETA 80 EGUNEAN (2010)

Euskarazko fikziozko zinema produkzioaren susperraldia dela eta, datozen lerroetan 2000ko hamarkadako azken urteetan ekoiztutako euskarazko lau film luzeren azterketa ekonomikoa egingo da. Alegia, aurretik xehatutako euskal zinemaren finantziario iturri desberdinak aintzat hartuta, eta, 2005an inflexio puntua suposatu zuen *Aupa Etxebeste!* filma abiapuntu, 2012ra bitartean egingandako fikziozko lau film nola finantzatu diren azaltzeko²⁴.

24. 2005-2010 bitartean egindako fikziozko euskarazko gainontzeko film luzeen aurrekontuen datuen faltan, ez da zerrenda bat osatu beste filmen fitxa teknikoekin. Gainera, ez dira ekonomikoki aztertu lan honetan. Dena den, 2005-2012 urte bitartean ekoiztutako beste fikziozko euskarazko film luzeen zerrenda Taula 8an jasotzen da.

4.1. *Aupa Etxebeste!* (2005)

Aupa Etxebeste! (2005) film luzea EAEko bi produkzio-etxeren artean ekoiztutako lana da; Alokatu S.L eta Irusoin S.L ekoiztetxeek eginikoa hain zuzen ere. Horrez gainera, filma euskal bi zuzendarik gidatu dute: Telmo Esnalek eta Asier Altunak. Komedia generoko ikus-entzunezko honek ordu eta erdi eskas irauten du, eta haren aurrekontua 1.494.800,31 eurokoa da.



Fitxa teknikoa

Zuzendaritza: Telmo Esnal - Asier Altuna

Gidoia: Telmo Esnal, Asier Altuna, Pablo Bueno

Urtea: 2005

Iraupena: 97 min.

Generoa: komedia

Ekoizpena: Alokatu S.L - Irusoin S.L

Ekoizle exekutiboak: Iñaki Gomez - Jose Maria Lara

Ekoizpen zuzendaria: Ander Sistiaga

Aurrekontua: 1.494.800,31 €

Irudia 1. *Aupa Etxebeste!* filmaren kartela.

4.2. *Kutsidazu bidea, Ixabel* (2007)

Kutsidazu bidea, Ixabel (2006) film luzea EAEko hiru produkzio-etxeren artean ekoiztutako lana da; Orio Produkzioak, Tentazioak eta REC grabaketa estudioak eginikoa. Horrez gainera, filmak bi zuzendari ditu: Mireia Gabilondo bata, eta Fernando Bernues, bestea. Ordu eta hogeita minutu irauten duen komedia honen aurrekontua 996.494,53 eurokoa da.



Fitxa teknikoa

Zuzendaritza: Fernando Bernues eta Mireia Gabilondo

Gidoia: Carlos Zabala, Nagore Aranburu, Joxean Sagastizabal

Urtea: 2006

Iraupena: 80 min.

Generoa: komedia

Ekoizpena: Orio Produkzioak, S.A. Tentazioa Produkzioak, REC Grabaketa Estudioak S.L.

Ekoizle exekutiboak: Eneko Olasagasti - Unai Ibarbia

Ekoizpen zuzendaria: Isabel Illoro

Aurrekontua: 996.495 €

Irudia 2. *Kutsidazu bidea, Ixabel* filmaren kartela.

4.3. *Eutsi!* (2007)

Eutsi! (2007) film luzea EAEko bi produkzio-etxeren eta banaketa etxe baten artean ekoiztutako lana da; Baleuko S.A, Irusoin S.L eta Barton Films S.L eginikoa. Horrez gainera, filmak euskal zuzendari bakarra du: Alberto J. Gorritiberea. Ordu eta erdi pasatxo irauten duen komediak honek 596.181,23 euroko aurrekontua du.



Fitxa teknikoa

Zuzendaritza: Alberto J. Gorritiberea
Gidoia: Unai Iturriaga - Alberto J. Gorritiberea
Urtea: 2007
Iraupena: 97 min.
Generoa: komedia
Ekoizpena: Baleuko S.L, Irusoin S.A, Barton Films S.L
Ekoizle eragileak: Karmelo Vivanco, Eduardo Barinaga, Fernando Larrondo, Jose Antonio Fernandez.
Ekoizpen zuzendaria: Asier Bilbao
Ekoizpen burua: Almudena Illoro
Aurrekontua: 596.181,23 €

Irudia 3. *Eutsi!* filmaren kartela.

4.4. *80 egunean* (2010)

80 egunean (2010) EAEko bi produkzio-etxeren artean ekoiztutako film luzea da. Irusoin S.L eta Moriarti Produkzioak eginikoa hain justu. Euskal bi zinemagilek zuzendu dute filma, Jose Mari Goenagak eta Jon Garañok. 105 minutu irauten duen fikziozko film luze honen generoa drama da eta 1.774.752,01 euroko kostua du.



Fitxa teknikoa

Zuzendaritza: Jose Mari Goenaga - Jon Garaño
Gidoia: Jose Mari Goenaga - Jon Garaño
Urtea: 2010
Iraupena: 105 min.
Generoa: drama
Ekoizpena: Irusoin S.A - Moriarti Produkzioak
Ekoizpen exekutiboa: Xabier Berzosa - Iñigo Obeso
Ekoizpen zuzendaria: Ander Sistiaga
Aurrekontua: 1.774.752,01 €

Irudia 4. *80 egunean* filmaren kartela.

Taula 6n ikusi daitekeen moduan, finantziario publikoak pisu handia du fikziozko euskarazko film hauen finantziarioan. Hiru kasutan –*Aupa Etxebeste!* (2005), *Kutsidazu bidea, Ixabel* (2006) eta *80 egunean* (2010) filmetan, hain zuzen– diru laguntza edota inbertsio publikoak pelikulen aurrekontuaren erdia baino gehiago finantzatzeko balio du. Are gehiago, 2005ean eta 2010ean egindako bi film luzeek aurrekontuaren hiru laurdenak baino gehiago finantzatzeko aukera dute, bakarrik baliabide publikoak erabiliz: %75,08 eta %77,24 hurrenez hurren.

Eutsi! (2007) filmaren kasua bestelakoa da, izan ere, film luzea finantzatzeko baliabide edota inbertsio pribatuak pisu handiena du. Aurrekontuaren %55,77 diru-iturri pribatutik lortutako finantziarioarekin estali asmo dute, alegia, erdia baino gehiago.

Gauzak hala, euskarazko fikziozko filmak egiteko diru-laguntza edota inbertsio publikoaren beharra azpimarratu behar da. Hori bai, kapital publikoa euskarazko fikziozko zinemaren finantzaketan funtsezkoa izanik, epe luzerako inbertsio bezala ulertu behar da hori eta ez gastu bat balitz bezala. Diru-laguntzen inbertsioak balio izan du zinema industriaren hainbat alor gehiago landu eta indartzeko. Modu batera edo bestera, 2000ko hamarkadan zinemari emandako bultzada ekonomikoak lagundu du arlo tekniko zein artistikoa lantzeko, euskarazko zinema ekoizpena berreskuratzeko eta produktu hobek egiteko. Horregatik, inbertsio publikoaren emaitzak balioetsi behar dira.

Taula 6. Filmaren finantziario publiko eta pribatuaren arteko aldea

Film luzea	Finantziario publikoa	Finantziario pribatua
Aupa Etxebeste! (2005)	%75,08	%25,09
Kutsidazu bidea, Ixabel (2006)	%63,28	%36,77
Eutsi! (2007)	%45,23	%55,77
80 egunean (2010)	%77,24	%22,76

Iturria: Ekoiztetxeek autoreari emandako filmaren gaineko datuetan oinarrituta. Norberak egina.

Finantziario publiko eta pribatutik haratago, ICAA, Eusko Jaurlaritzaren eta ETB erakundearen inbertsio aldea ere esanguratsua da. Eusko Jaurlaritzaren inbertsioa bi filmetan da handiena, *Kutsidazu bidea, Ixabel* (2006) eta *80 egunean* (2010) kasuetan hain justu ere. Lehenengoan Jaurlaritzaren ekarpenak aurrekontuaren %45,15 hartzen du, eta bigarrenean aldiz, aurrekontuaren %16,68. ICAAren berriz, film bakarrean da handiena; *Aupa Etxebeste!* (2005) filmean egiten duen inbertsioak haren aurrekontuaren %32 hartzen du. Azkenik, ETBren inbertsio handiena film bakarrean ematen da ere, *Eutsi!* (2007) film luzean hain justu. Haren ekarpena filmaren gastu osoaren %40,2 hartzen du.

Taula 7. EJren, ICAAren eta ETBren inbertsioa²⁵

Film luzea	ICAA	EJ	ETB
Aupa Etxebeste! (2005)	%32	%29,48	%14,74
Kutsidazu bidea, Ixabel (2006)	–*	%45,15	%18,06
Eutsi! (2007)	–*	%5,03	%40,2
80 egunean (2010)	%11,98	%16,68	%15,7

Iturria: Ekoiztetxeek autoreari emandako filmen gaineko datuetan oinarrituta. ICAA. Eusko Jaurlaritza. Norberak egina.

Bestetik, deigarria da bi pelikuletan ez jasotzea ICAAren diru-laguntzarik, nahiz eta kasu batean espresuki laguntza horiei uko egitea erabaki den. Erakundeen inbertsio medioari dagokionean, Eusko Jaurlaritza eta ETBren emaitzak nahiko parekatuta daude. Taula 7ko datuen arabera, Jaurlaritzak %24,08ko inbertsio medioa egin du lau film hauetan; eta ETBk berriz, %22,13ko inbertsio medioa.

Taula 8. Inbertsio propioa, banku finantzaketa pribatua eta aurre-salmenten inbertsioak

Film luzea	Inbertsio propioa	Beste batzuk (aurre salmentak)	Banku finantzaketa pribatua
Aupa Etxebeste! (2005)	%2,89	%47,97	–
Kutsidazu bidea, Ixabel (2006)	%34,37	%15,05	–
Eutsi! (2007)	%29,55	%5,03	%25,16
80 egunean (2010)	%15,44	%7,7	–

Iturria: Ekoiztetxeek autoreari emandako filmen gaineko datuetan oinarrituta. Norberak egina.

Fikziozko film luzeen finantziario ereduaren ikusitako berritasuna banku finantzaketa pribatua izan da dudarik gabe. Bestetik, ekoizleen inbertsio propioak ere atentzioa deitzen du, izan ere, kasu batean baino gehiagotan fondo propioen erabilpena beste motatako inbertsioena baino nabarmen handiagoa izan da.

Taula 8ko datuen arabera, lau pelikuletatik hirutan inbertsio propioen erabilpena %15 eta %35 artekoa da. *80 egunean* (2010) filmean ekoizleak

25. Aurrekontu hauetan ICAAren inbertsioa ez agertzea deigarria da, izan ere, inbertsio automatikoa eta zuzendari berriendako diru-laguntzak oinarritzkoak dira. *Kutsidazu bidea, Ixabel* (2006) filmaren kasuan, berriz, esan behar da ICAAren diru-laguntzei espreski uko egitea erabaki zutela hasieratik.

gutxienez %15eko inbertsioa egiten du; *Eutsi!* (2007) film luzearen kasuan aldiz, %29,55koa; eta azkenik, *Kutsidazu bidea, Ixabelen* (2006) %34,37koa. Hiru film horietan ekoizleek egiten duten inbertsioa esanguratsua da, eta bereziki azken bietan egiten dena. Salbuespena *Aupa Etxebeste!* (2005) filma da, izan ere, kasu horretan inbertsioaren %2,89 bakarrik jartzen du ekoizleak bere poltsikotik.

Bestetik, lau pelikuletatik hirutan beste motatako inbertsioak %5 eta %15,05 artekoak dira. Salbuespena hemen ere *Aupa Etxebeste!* (2005) filma da. Kasu horretan aurre salmenta bidez inbertsioaren %47,97 batzen da. Azken kopuru hori deigarria da erabat. Azkenik, *Eutsi!* (2007) film luzean emandako banku finantzaketa ere azpimarratu behar da. Berritasuna izateaz gain, haren zenbatekoa (%25,16) ekoizleek egindako inbertsioaren arrisku maila altuaren isla da.

Taula 9. Estatu mailako erakunde publiko eta pribatuei dagokienean, euskal eta bestelako inbertsio eta diru-laguntzen arteko aldea

Film luzea	Euskal inbertsio eta diru-laguntzak	Bestelako inbertsio eta diru-laguntzak
Aupa Etxebeste! (2005)	%47,11	%52,89
Kutsidazu bidea, Ixabel (2006)	%100	–
Eutsi! (2007)	%100	–
80 egunean (2010)	%80,7	%19,3

Iturria: Ekoiztetxeek autoreari emandako filmen gaineko datuetan oinarrituta. Norberak egina.

Estatu mailako entitate publiko zein pribatuak kontuan hartuta, euskal erakundeek inbertsio eta diru-laguntzak informazio garrantzitsua adierazten du. Taula 9ko datuen arabera, deigarria da aztertutako euskarazko fikziozko film horietan euskal erakundeetatik datorren inbertsioaren presentzia altua. *Kutsidazu bidea, Ixabel* (2006) eta *Eutsi!* (2007) filmen kasuan, euskal inbertsio eta diru-laguntzen zenbatekoak finantziarioaren %100 suposatzen du, hau da, finantziario moduan batutako diru guztia euskal erakunde publiko eta pribatuetatik dator. Hala, Madrildik edota Europatik bideratzen diren diru-laguntza publiko eta inbertsio pribatuen presentziarik ez dago. Horrek esan nahi du 2006an eta 2007an egindako filmak ekoizteko lurralde barruko baliabide ekonomikoak erabili direla %100ean.

Bestetik, *80 egunean* (2010) filmean euskal inbertsio eta diru-laguntzek bestelako izaera dutenek baino pisu handiagoa dute. Kasu honetan baina, finantziarioaren %80,7 suposatzen du kopuru horrek. Hala eta guztiz ere, portzentaje altua da eta bestelako diru-laguntza eta inbertsioen aldean, erabat nabarmentzen da. *Aupa Etxebeste!* (2005) filma da salbuespena, izan ere, bestelako izaera duten inbertsio eta diru-laguntzen finantziarioa da kopuru handiena duena. Euskal erakundeetatik finantziarioaren %47,11 lortzen da kasu honetan; eta bestelako izaera duten erakunde publiko zein pribatuetatik

berriz, %52,89. Ildo horretan, komeni da aipatzea ez dagoela alde handirik bien artean, baina beste pelikuletan emandako emaitzekin alderatuz gero, esangura bestelakoa da. Alegia, %100, %80,7 eta %47,11 portzentajeen arteko alde nabarmena.

5. EUSKARAZKO FIKZIOZKO ZINEMAREN ETORKIZUNENKORAK

Publikoarekin harremana berreskuratzea eta ekoizpenari jarraitutasuna ematea dira euskarazko fikziozko zinemaren erronka nagusiak. Koldo Almandoz zinemagile euskaldunak dioenez, azken euskarazko film luzeek batutako ikusle kopurua *Aupa Etxebeste!* (2005) ikusi zuen jende kopurutik –71.951 ikusle–urruti geratu da²⁶.

Taula 10. 2000-2012 urte bitarteko euskarazko fikziozko filmen ikusle eta diru-bilketa kopurua

Euskarazko fikziozko film luzea	Urtea	Ikusle kopurua	Diru-bilketa
Aupa Etxebeste!	2005	71.972	341.504,80 €
Kutsidazu bidea, Ixabel	2006	45.539	212.724,39 €
Eutsi!	2007	26.463	136.766,05 €
Ander	2009	602	2.684,80 €
Sukalde kontuak	2009	4.996	27.183,70 €
Zorion perfektua	2009	6.282	33.682,74 €
80 egunean	2010	21.886	121.613,82 €
Aita	2010	945	5.450,60 €
Izarren argia	2010	24.737	132.914,66 €
Zigortzaileak	2010	4.427	18.118,95 €
Urte berri on, Amona!	2011	14.583	80.823,60 €
Bi anai	2011	1.020	6.527,50 €
Arriya	2011	9.718	49.831 €
Bypass	2012	36.008	172.934,52 €
Dragoi ehiztaria	2012	22.575	94.860,17 €

Iturria: ICAA. Norberak egina.

Atzean hainbat arrazoi daude Almandozen ustetan, baina kontsumo ohituraren aldaketa eta jendeak filmak telebistan eman arte itxoiten duela azpimarratzen ditu. Hau da, “errealitateak dio ez garela aretoetara joaten”. Taula 10ean

26. GARCIA IDIAKEZ, Mikel. “Lilura hauskorra”. *Argia*, 2303 zkia.; 47 or.

jasotako datuen arabera, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* (2006) eta *Eutsi!* (2007) filmek 45.539 eta 26.463 ikusle batu zituzten, hurrenez hurren. Eta ordutik ez da errepikatu 2005ean lortutako emaitza ona. Fikziozko eta euskarazko film luzeei dagokienean, pelikulek batutako ikusle kopuruak beheranzko joera izan du –baita haien diru-bilketak ere–. *Aupa Etxebeste!* (2005) filmaren ondoren estreinatutakoek gero eta ikusle gutxiago batu dituzte; salbuespen batzuk kenduta, *80 egunean* (2010), *Izarren argia* (2010), *Bypass* (2012) eta *Dragoi ehiztaria* (2012). Gainontzeko kasu guztietan 10.000 ikusle baino gutxiago batu da –*Urte berri on*, *Amona!* (2011) filmaren kasuan izan ezik–. Kasu okerrerenetan 602 eta 945 ikusle izan dira, *Ander* (2009) eta *Aita* (2010) filmetan hain zuzen ere.

Kulturaren Euskal Behatokiak 2008an egindako Euskal Herriko Kultura Ohiturei, Praktikei eta Kontsumoari buruzko estatistika txostenean jasotzen denez, hamar lagunetatik lau bakarrik joaten dira zinema aretoetara maiz –biztanleen %41 joan da azken hiruhilekoan, hain justu ere–. EAEko biztanleriaren %49,4 ez da zinemara joaten denbora falta dela eta. Zinema aretoetara ez joatearen bigarren arrazoi nagusia, ordea, sarreraren kostu ekonomikoa da: %42,5. Eta laugarrena, zinema eskaintza publikoaren gustuekin bat ez dato-rrela: %8. Kontsumo ohituren aldaketa ere jasotzen du txostenak. Hala, zinema aretoetatik kanpo kontsumitzeko ohitura gero eta zabalgoagoa da: galdetutakoen %63k bestelako formatuetan kontsumitzen du zinema –EAEko biztanleen bi herenak bideoan edota DVDan kontsumitzen du–. Hori bai, adinaren arabera desberdintasunak daude: gazteen %45ek Internetetik deskargatzen ditu filmak eta helduen %49,1ek, berriz, lagunek eta senideek utzita ikusten ditu.

Gustu kulturei dagokienean, 10etik 6ko puntuazioa ematen diote EAEko biztanleek zinemarekiko duten interesari. Bestalde, helduei baino gehiago jende gazteari interesatzen zaio zinema. Zenbatekoak behera egiten du adinean gora eginez gero: %7,4ko batez bestekoa du gazteen artean, eta 64 urtetik gorakoen artean, berriz, %4,5ekoa.

Film guztientzako adina publiko ez dagoela pentsatzen dutenak ere badaude, film gehiegi ez ote diren egiten galdetzen dutenak. Garrantzitsua da filmak egitea bai, eta are gehiago euskarazkoak badira –euskal kultura indartzen dutelako–, baina publikoarekin harremana berreskuratzea, ibilbideak garatzeko mekanismoak bultzatzea eta “irrotasun urriko euskal film industria” sendotzea lehentasunezko erronkak izan behar dute²⁷. Ildo horretan, Anjel Amigo ekoizle euskaldunak politika industrial baten beharra aipatzen du, “ekoiztetxeek jarraitutasun bat izan dezaten eta zinemagileek ibilbideak gara ditzaten”²⁸. Baina esandako moduan, ez ditugu film asko behar. Telmo

27. *Panorama Cinematográfico País Vasco 2002-2007*. Madril: Media Research & Consultancy, 2008; 11 or. (3 or.)

28. EROSTARBE, Gorka. “Urrutirago begira”. [Sarean]. In: *Berria.info*. 2011ko maiatzaren 8. http://paperekoa.berria.info/plaza/2011-05-08/030/001/lege_info.htm [kontsulta data: 2011ko ekainaren 5]

Esnal euskal zinemagileak ondo dio: “ez legoke gaizki pauso bat eman eta aurrekontu handiagoeekin filmatzea”²⁹, Alberto Gorritiberea zinema zuzendariaren ustetan, “lan konkretuak direlako harrera ona edo txarra jasotzen dutenak”³⁰.

6. ONDORIOAK

2000ko hamarkadan Euskal Autonomia Erkidegoko zinema industriaren oinarri ekonomikoak garatu dira nagusiki, 2007ko Ikus-entzunezko ekoizpena arautzen duen finantziario dekretuari esker hein handi batean. Zinema ekoizpena babesteko bestelako hitzarmen, bultzada eta sektoreko hainbat eragileen arteko harreman-estutzea ere jazo dira. Finean, diru-laguntzen handitzea eman da. Azken zortzi urteotako uzta oparoak, berriz, euskarazko film luzeen kopuruak nabarmen gora egin duela erakutsi du. Hori bakarrik euskarazko lanei dago kienean. Horregatik, eta datu ekonomikoak oinarri, diru-laguntza publikoaren inbertsioa funtsezkoa bihurtu da euskarazko fikziozko filmen finantziarioan, eta babes ekonomiko hori 2005-2010 urte bitarteko ekoizpen jarraituen ezaugarri nagusia izan da.

Sormenean, arlo teknikoan eta ekonomikoan egindako inbertsio publikoak euskarazko zinema industriari epe luzera jarraitutasuna eman ahal dien oinarri sendoak ezartzen hasteko lagundu du. Badirudi euskarazko zinemagintzak atzean utzi nahi duela aldizkako ekoizpen eredua, eta, egindako pelikulekin publikoaren erantzuna berreskuratu nahi duela. 2011ko azken hiru hilabeteetan euskarazko film batzuen estreinaldi pilaketa gertatu zen, horietako batzuek zinema-aretoak bete egin zituzten eta karteldegian lauzpabost aste irautea lortu zuten. Horrez gainera, pelikulen aniztasuna azpimarratu behar da; estiloan, generoan eta hizkuntza erregistroan ere. Hala, hasitako ibilbide honi jarraitutasuna emateko nahia nabaria izanik, baliabide teknikoetan eta giza baliabidetan oinarrituta euskarazko zinemaren zimenduak ezartzen ari direneko trantsizioaldi berria antzeman daiteke. Alabaina, ondorengo urteetan zer gertatzen den tentuz jarraitu beharko da, egoerak okerrera egin dezakeelako epe laburrean, krisi ekonomikoak bultzatu dituen diru-laguntzen murrizketen ondorioz.

Bestetik, euskarazko fikziozko pelikulek ez dute lortu oraindik publikoaren nahi besteko erantzuna zinema aretoetan. 2005-2012 bitartean egindako ekoizpenetatik gutxi batzuek besterik ez dute lortu emaitza ona. Arazo ekonomikoak tarteko, film luzeak ez dira behar beste promozionatzen eta inbertsio txikia egiten da arlo artistikoan. Pelikulen estreinaldien pilaketak ekidin eta publikoaren arreta pizten duten produktu landuagoak egitea litzateke

29. ZABALA, Juan Luis. “Ez legoke gaizki pauso bat eman eta aurrekontu handiagoeekin filmatzea”. [Sarean]. In: *Berria.info*. 2011ko irailaren 4. http://paperekoa.berria.info/plaza/2011-09-04/030/001/ez_legoke_gaizki_pauso_bat_eman_eta_aurrekontu_handiagoeekin_filmatzea.htm

30. EROSTARBE, Gorka. “Urrutirago begira”. [Sarean]. In: *Berria.info*. 2011ko maiatzaren 8. http://paperekoa.berria.info/plaza/2011-05-08/030/001/lege_info.htm

irtenbidetako bat. Horretarako, promozioan eta arlo artistikoan gehiago inbertitzea ezinbestekoa da. Beraz, proiektu bakoitza sakonago aztertu eta arrakasta lortu dezaketen horiek diruz gehiago laguntzea egokia litzateke. Aurrekontu handiagoko proiektuak egiten hasteko une aproposa baita.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- AGIRRE DORRONSORO, Lorea. "Eraiki, baina zer". [Sarean]. In: *Berria.info*. http://papelerekoa.berria.info/plaza/2011-11-18/034/003/eraiki_baina_zer.htm. [kontsulta data: 2011ko urriaren 18].
- ÁLVAREZ MONZONCILLO, José María; LÓPEZ VILLANUEVA, Javier. "El Audiovisual Español. Nuevas oportunidades en el exterior". In: BUSTAMANTE, Enrique (coord.) *Informe sobre la cultura española y su proyección global*. Madril: Fundación Alternativas, 2011. 115-131 or.
- AZPILLAGA GOENAGA, Patxi. "Euskadiko ikus-entzunezko industriaren erronkak". In: *Jakin*, 194/195 zk., 61-76 or.
- . "Ikus-entzunezko Industria Hego Euskal Herrian". In: *Jakin*, 99 zk.; 1997, 11-29 or.
- . "Euskal Herriko zinegintzaren oinarri ekonomikoak". In: *Jakin*, 144. zk.; 2004, 85-101 or.
- DE LA SIERRA, Susana. *Derecho del cine: administración cultural y mercado*. 1 arg., Madril: lustel, 2010; 302 or.
- DE PABLO, Santiago. *Cien años de cine en el País Vasco (1996-1995)*. 1 arg. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, Kultura Saila, 1995; 122 or.
- EROSTARBE, Gorka. "Urrutirago begira". [Sarean]. In: *Berria.info*. http://papelerekoa.berria.info/plaza/2011-05-08/030/001/lege_info.htm [kontsulta data: 2011ko ekainaren 5].
- Estadística de hábitos, prácticas y consumo en cultura en Euskal Herria 2007-2008*. Vitoria-Gasteiz: Kulturaren Euskal Behatokia, 2008; 112 or.
- Euskal Ikus-entzunezkoen Liburu Zuria*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, 2003; 169.
- GARCIA IDIAKEZ, Mikel. *Zeluloidezko begiradak*. 1 arg., Donostia: Elkar, 2011; 222 or.
- . Lilura hauskorra. In: *Argia*, 2303 zk.; 47 or.
- GOMEZ SARASOLA, Iñaki. "Euskarazko film luzeak ekoizteko eta banatzeko zailtasunak". In: *Gure zinema gaur*, Eskoriatza: Mondragon Unibertsitatea, 2009ko maiatzaren 4.
- Panorama Cinematográfico País Vasco 2002-2007*. Madril: Media Research & Consultancy, 2008; 11 or.
- ROLDAN LARRETA, Carlos. "El cine en el País Vasco; desde Ama Lur (1968) a Airbag (1997)". *Ikusgaiak. Cuadernos de Cinematografía*, 3 zk.; 1999, 406 or.
- V. Inkesta soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2012; 27 or.

Manias-Muñoz, Miren: Euskarazko fikziozko zinemaren susperraldi hauskorra (2005-2012)

ZABALA, Juan Luis. “Ez legoke gaizki pauso bat eman eta aurrekontu handiangoekin filmatzea”. [Sarean]. In: *Berria.info*. http://paperekoa.berria.info/plaza/2011-09-04/030/001/ez_legoke_gaizki_pauso_bat_eman_eta_aurrekontu_handiangoekin_filmatzea.htm [kontsulta data: 2011ko irailaren 25].

ZALLO ELGUEZABAL, Ramón (Zuz.). *Industrias y políticas culturales en España y País Vasco*. 1 arg., Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua, 1995; 428 or.